



**EBAZPENA, 2016KO AZAROAREN 16KOA, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2016/2017 IKASTURTERAKO BERRITZEGUNE ETA INGURUGELA ZENTROETAN HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA BEHIN-BEHINEKOZ EBAZTEN DUENA.**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2016ko irailaren 28ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen 2016/2017 ikasturterako Berritzegunes e Ingurugela zentroetan hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko.

Deialdiaren zazpigarren artikularen arabera, balorazio prozesua egin eta gero, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin-behineko ebazpena emango du eta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web-orrian jarriko da jendaurrean; halaber, hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

Horiek horrela, eta balorazio batzorde orokorrak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web orrian argitaratzea I. Eranskinean agertzen den hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen behin behineko zerrenda.

**Bigarrena.-** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web orrian argitaratzea II. Eranskinean agertzen den ordezkapenen lan-poltsa osatuko duten pertsonak.

**Hirugarrena.-** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web orrian argitaratzea III. Eranskinean agertzen den baztertutako eskaeren zerrenda.

**Laugarrena.-** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web orrian argitaratzea IV. Eranskinean agertzen diren behin-behineko emaitzak.

**Bosgarrena.-** Interesatuak euren eskubideei egokitzen zaizkien erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 16a

KONRADO MUGERTZA URKIDI  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA